

Arantzazu

Bitoriano Gandiagaren Begitan



1969. urtea:
Arantzazuko fatxada bukatu zutenekoa

TRISTE ATERA DA
tristearen erretratua.
Arantzazu, 1969.
Elizako fatxada
bukatu den eguna.

Barre egin zezala
agindu zioten tristeari.
Ta egin zuen tristeak.
Tristeagoa...!
Barre tristearengatik
gaiztoa deitu zioten
tristeari.

Ta rebelde bezala
dago fitxaturik.

Triste egon, poeta zegoen triste Arantzazuko elizaren fatxadaren goi-goian Andre Maria Doloretakoa, Pietatea, ipini zuten egun hartan.

Aurten ospatu dugu 50. urteurrena, Oteizak bere Apostoluak eta Pietatea Arantzazuko fatxadan ipini zituenekoa. 1969an izan zen hori: Ekainean ipini zituen Apostoluak, eta geroago, Urrian, Pietatea.

Orduko da Bitoriano Gandiagaren poema harrigarri hau. Oteizarekin batera, inguruko denak zeuden pozarren, obra hura burututa ikustean azkenean. Gandiaga, berriz, Oteiza-

ren adiskide eta laguntzaile ona –tiriki taiki, taiki!–, triste geratu zen Pietatearen irudia han goian ikusi zuenean: bakarrik, bere Seme hila oinetan.

Berak ere zorionik beroenak eman zizkion, jakina, Oteizari, eta poztu egin zen artistarekin batera. Baina goi-goi bakarreko irudi haren bakardadeak tristura sakonen utzi zuen, irudiari berari zerion tristurak hartua, beste olerki batean kantatu zuenez: “Harrizko irudi / handi bat diote / egin bakardadeari” eta “Ez da atsegin / bakardade triste batekin / trikitx egitea”.